

BERRIGARA

39. zenbakia

JARDUN Elkarteak Bergara

1994, Otsailak 25



Erreskate taldeak larri



CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA

Superlibreta
% 5

Opari eta guzti

Berrogei urte ingurura iristean beren itxura, beren azala, aldatzen hasi dela konturatzen dira pertsona (andra zein gizon) asko: beren azala ajatzen hasita dagoela.

Elikadura desegokiak, stressak, ariketa fisikorik edo deskantsurik ezak, eta gure gorputza gutxi edo gaizki zaintzeak, gure itxura hondatzea eta geuretzat ere gustoko ez izatea dakarte. Horrek arazoa larritu egiten du.

Lehenengo konponbidea: sakrifizio txiki bat eta gure elikadura-modua aldatu eta ariketa pixka bat egiten hasi. Umorea eta hobeto sentitzeko gogoia oso lagungarri dira une honetan.

Bigarren konponbidea: tratamendu kosmetiko profesional egoki bat. Estetika-kosmetikaren munduan izan den iraultzarik haundiena dugu honetan: alfa-hidroxiakidoak (AHA)

Azido glikolikoa: kontzentrazio-mailaren ara-

bera, oso ezaugarri desberdinak izan ditzake. Hori dela eta, %10, %20 eta %70 arteko kontzentrazioak erabiltzen ditugu, pertsona bakoitzak behar duen tratamenduaren arabera. Gutxi hondatuta

berri-tzatzailea, azido glikoliko eta antiradikal libredu-na.

Germaine de Capuccini: kosmetika profesionalaren merkatuko punta-puntako marka.



ALFA-HIDROAXIDOEN KOSMETIKA-IRAULTZA

Marisabel Hurtadok azalduta

dagoen azal batek nahikoa izango du urtean behineko tratamendu-saio bat. Gero, etxean azido glikolikoa duen krema batez (**Sequence** lineako batez) zaintzen bazu bere azala, oso emaitza onak eta iraunkorrak lortuko ditu.

SEQUENCE: azal berrikuntzarako linea sekuentziala.

Sequence iraunkorki erabiliz, azalaren gain-gaineko kapak, zelula hilez osatutakoak, kentzea lortuko dugu. Hala, azaleko hainbat aldaketa, zimurrak, grasa-gehiegia, mantxak, etab., ebitatzea lortuko dugu.

Sequence produktua: Esne esfoliatzailea, galetarako berriztatzailea eta krema ber-

Z E R B E R R I D A ?

EMILIO RODRIGUEZ


Komite Internazionalistak

- Zein da egungo egoera Chiapasen?

- Alde batetik poz haundikoa bi aldeak negoziatzen hasi direlako (aurpegia estalita eta guzti) baina, bestalde, mexikar gobernuak, ohiz bezala, giza eskubideen bortxaketekin jarraituko duen beldurra dago.

- Eta ze irtenbide izan dezake arazoak?

- Epe laburrera errez konpondu daitezkeen arazoak daude. Nazio mailan hauteskunde libreak egotea (ez orain arte egon diren gezur eta faltsukeriak PRIren partetik) eta horretarako alderdi guztiak ados jarri dira hauteskunde iruzurraren aurka egiteko. Maila lokalean, berriz, komu-



nikabide, osasun eta eskolen hobekuntza lor daiteke. Baina latifundistek lapurtutako lurrak bueltatzea oso nekeza izango da, Chiapasen pisu politiko handia baitute. Azkenik, aldarrikatzen den autonomia Gobernuarentzat oso gogorra da, petroleoa eta egur erre-serbak daudelako bertan. Negoziaketa gogorrak izango dira.

"Chiapasi buruzko negoziaketak gogorrak izango dira"

I T U R R I O N E T I K

Gabonetan jaiotza jarriko da San Martin Plazan

Aurtengo Gabonetan Jaiotza jartzeko asmoa dauka Udalak. Kultura Batzordeak Simon Arrieta Zeramika taldeko kide bati jaiotzarako figurak egiteko enkargua luzatu dio. 40 bat zentimetroko San Jose, Amabirjina edota Errege Magoak egingo dira. Jakingo duzuenetz, Gabonetarako Udaletxe berria bukatuta egotea espero du Udalak. Udaletxea berriztuta, azken urteetan galdu den ohitura bat berreskuratuko da. Orain dela hiruzpalau urtetik hona ez da zuhaitzik jarri Gabonetan eta urte gehiago izango dira jaiotzarik ipini ez dela.

ESAN DUTE

"18 urteko gazte batek karneta ateratzen duenean ez daki egoera arriskutsuetan nola jokatu, baina praktikarekin ikasten dira gauza horiek: esate baterako, bihurgune batean noiz frenatu zorua bustita baldin badago eta antzerako egoeretan kotxea nola dominatu"

IVAN RODRIGUEZ
Auto gidaria
EUSKADI IRRATIA

"Azken bi legealdietan emakume bakarra sailburu izatea baliabideak alperrik galtzea da, Gobernu batean bost bat sailburu emakumezko egon beharko lirateke"

MARI KARMEN GALLASTEGI
Ekonomia Sailburu ohia
ETB

"Gizarte desmilitarizatu bat aldarrikatzen duen intsumiso eta gaizkiletzat hartzen dut neure burua. Ordezko Zerbitzu Soziala zigor eta umilazio barkaezina da"

IMANOL BOLINAGA
EAJko Senataria
DEIA

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.

Tfnoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Masterreka, 13. 20.570 Bergara.

76 03 97

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa:

Mikel Azkarate, Eduardo Mendibil eta

Mikel Elkoroberezar.

Konkretzioa:

Mikel Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Mikel Azkarate eta Gorka Elorza.

76 03 97

Elaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,

Miguel Angel Elkoroberezar, Juan Martin

Leizola, Josu Oregi, Maripi Laskurain,

Alfonso Alzela, Ainhoa Lete, Jon Ander

Argandoña, Mikel Lizarralde, Monika

Alastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa

Alzola, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra

eta Ane Miren Goenaga.

Argazki laborategia:

Argazki-Pol Argazki Taldea.

Omikria eta marrazkiak:

Emilio Rodriguez, Gorka Ortega, Jon

Argandoña, Jose Martin Ezenarro

eta Julian Ezenarro.

Finantza:

Argazki-Pol Argazki Taldea.

Irada: 3.500 ale.

Primategia:

Argazki-Pol Argazki Taldea.

Copyright: BERRIGARA

Argazki gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen

argazkiaren adierazitako esaneren eta iritzien


erantzukizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



EL BUEN HIJO

Ostirala: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.



TINA

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.



ORLANDO

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Macaulay Culkin** arrakastatsuak eginiko azken filma. Oraingo honetan bera bezalako beste mutiko bat izango du aurrean (**Elijah Wood**). **Ian Mc Ewan** (*El inocente*) idazlearen gidoiari jarraituz, **Joseph Ruben** zuzendariak gaizkilearen aurpegia azaltzen digu.

▼▼ **Tina Turner** kantantearen bizitza eta **Ike Turnerekin** izandako erlazioaren gorabeherak kontatzen zaizkigu. Arrakasta lortu aurretik, gorriak pasa behar izan zituen Tinak. **Angela Basset** eta **Lawrence Fishburnekin**.

▼▼ **Virginia Woolf** idazlearen nobelan oinarritutako filma. 400 urtetan zehar eta gaur egun arte bizitzeko aukera izanik, Orlando lehenbizi gizonezko eta ondoren emakumezkoa bihurtuko da. **Sally Potter** zuzendari eta **Tilda Swinton** protagonista.

Deiak

▼ **Labanak** musika taldea gaur 11tan Pizinetako tabernan.

▼ **Mendi irteera.** Igandera Gorla Alpino eta Pol-Polek Irrioz-Pagoeta-Zarautz irteera ingurri dute Bergarako afizionatuztiaz. Irteera goizeko 7etan Frontoitik.

▼ **Bosniaren** aldeko margo eskulturak igandera arte salgai Kultur Etxean.

▼ **Xakea.** Partida azkarren txapelketa otsailaren 28tik martxoaren 2ra arte Oilagorran, 21.30etatik 23.30etara. Izen-ematea igandean bukatuko da.

▼ **Matinala.** "Asterix: El gogor de Menbir" filmea igandean 11.30etan Novedadesen.


Ogia

▼ **Igandea 27:** Ogizun.




GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 26:** Estella/Azkoaga
- ▼ **Igandea 27:** Estella/Español.
- ▼ **Astelehena 28:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Asteartea 1:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 2:** Puy.
- ▼ **Osteguna 3:** Guallar.
- ▼ **Ostirala 4:** Estella.



PINTURAS BERGARA



Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• **INDUSTRIARAKO PINTURAK** • **APAINKETARAKO PINTURAK** • **GARBIKETAK** • **ERROTULOAK** • **Etab...**

Txibisto diskoteka

orain dela bi urte inguru ezkeroztik itxita dago, Udal Pelotalekuan ezin daiteke pelota jaialdirik izan ezik beste eratako ekitaldirik antolatu, Gaztetxea itxita dago... Rock musika zuzenean entzun nahi duenak Bergaran jai dauka!...

Ez hainbeste, itxaropenari leiho bat ireki baitiote Valen eta Fernan Kalboetxeagak, Igerilekuetako tabernaren arduradunek. Kalboetxeaga anaiek, ostiral gauetan martxa pixkat eskaini nahian rock kontzertuak antolatzeari ekin baitiote. Honezkerok, lauzpabost talde pasatu dira pizinetako tabernatik (Josi y los Javis, Piztiak, Hazurbaltzak, Horkonpon...) eta ostiral honetarako *Labanak* rockanroleroak iragarri dituzte. OK Korral taldekoak izandako musikariek eta beste talde batzuetatik etorritakoenekin osatuta dagoen taldeak disko bat plazaratu zuen orain dela pare bat urte.

Fernan eta Valenen asmoa ostiralero talde bat ekartzea bada ere, jendearen erantzuna ez da eu-

Musikaz

Bergarako pizinetako taberna, herriko rock areto berria.

LABANAK TALDEA, GAUR GAUEKO 11etan

blai



Aurrerantzean Soziedad Alkoholika edota Flying Rebollos bezalako taldeak ekartzea da Kalboetxeaga anaien asmoa. Argazkian Hor Konpon taldea.

rak uste bezain ona izan eta gaurko kontzertuaren

ostean eta denboralditxo bat pasa arte ez dituzte gehiago ekarriko. "Taldek zuzenean jotzeko gogoz irrikatzen daude eta ez dute diru gehiegi eskatzen baina zerbait eman behar zaie eta aforria, edariak eta tabernan ateratzen den % 30a ematen diegu". Kontzer-

tuak doan izaten dira.

Euskal Herriko 30 bat talderen eskaintzak jaso dituzte baina orain arte gauzak nola joan diren ikusi eta gero, aurrerantzean ondo aukeratutako jaialdiak (antzerkia edota txontxongiloak ere) antolatuko dituzte, jende gehiago erakartzeko.

Labanak taldearena izango da oraingoz pizinetan antolatuko den azken kontzertua

KIZKUR



Ileapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

ETXAGI

Jatetxea

Afariak-Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

A-8 autopistan peajea kentzearen alde

Aspaldiko herri eskaerari erantzunez, Eguzkiko ekolojistok Bilbo-Behobian peajea lehen bait lehen bertan behera uztea premiazkoa dela uste dugu.

Eusko Jaurlaritzaren errepide plan-gintza orokorrak, berriz, peajea mantentzea ezezik, 2003. urtetik 2020ra luzatzea ere proposatzen du. Plan-gintza honek errepide sarea errazionalizatzea omen du helburu, baina nork sinetsiko du?

Bilbo-Behobia autopistako peajearen luzapena Maltzaga-Urbina ardatza eraikitzeke balio izango du. Administrazio buruzagiek, dirulaguntza Europatik etorriko dela sinistarazi nahi digute, baina guztiok garbi eduki behar dugu Maltzaga-Urbina ardatza eraikitzeke finantziabide bakarra A-8ko peajearen luzapena izango dela.

Europistasek, A-8ko peajeak hustiatzen dituen enpresak, urtean 5.600 milioi irabazten ditu, eta guzti hau geure poltsikoetatik... Non dago errazionalitatea?

Gainera Zornotza, Eibar edo Oreta bezalako kasuetan errazionalitatea peajea kentzearen bidez etorriko da. Honela, aipatutako herrietan autopistak bariantearena egingo luke,

bertako bizilagunen onerako. Baina beti bezala, administrazio zentzugabeko neurriak aurrera doaz, zenbait herritan bariante paraleloak eraikitzen ari direlarik. Non dago hemen errazionalitatea?

Kontestu honetan zera jakin nahi dugu: ba al da Euskal Herrian gaur egun A-8ren liberalizazioa baino ekolojikoki kalte gutxiago egiten duen, egiteko errezagoa den, efikazagoa eta demokratikagoa den trafiko neurrik?

EGUZKI

BERRIGARAKO GUTUNAK

Gutunak sailera bidalitako kartak identifikatuta bidali beharko dira **BERRIGARAKO** Erredakziora eta izen eta abizenarekin sinatuta argitaratuko dira.

Talde bat baldin bada idazlea, taldearen izena eta partaide baten izen eta abizenak bidali beharko dira.

Bestalde, karten luzera 30 lerro baino gutxiagokoa izatea eta, ahal izanez gero behintzat, makinaz idatzita bidaltzea eskatzen da.

BERRIGARAKO
ERREDAKZIO KONTSEILUA

Tiira biraka

JOSE MARTIN EZENARRO



Baldintza pleguen aurkako errekurtsioa aurkeztu dute merkatuko dendariak

Oraingo merkatuko dendariak ez dute azoka berriaren postua eskuratzeko eskakizunik aurkeztu Udaletxean. Dagoeneko amaitu da beraiei emandako epea eta orain lehiaketa publikora aterako dira merkatuko 27 postuak.

Merkatuan postua duten 7 merkatariek errekurtsio idatzi bat aurkeztu zuten astelehenean Udaletxean, pasa den otsailaren 4ean Udaltzaren (EAJ eta PSE-EEren aldeko eta HB eta EAren kontrako botoekin) onartutako baldintza pleguen aurka.

Bertan jasotzen denez, zuzeneko adjudikazioa ezinezkoa da eta beraz merkatariek balio gabeko metodotzat jotzen dute Udaltzaren onartutakoa (besteak beste errekurtsioak aurkezteko aukerarik jasotzen ez zelako), eta adjudikazioa bertan behera lagatzeko eskatzen dute. Komertziantek hainbat proposamen egiten dituzte, proiektuan jasotzen ez den plataforma mugikorren garrantzia azpimarratuz.

Postu bakoitzeko prezioa ere garestituz jotzen dute komertziantek; "inguruan ez dago modulo bakoitzeko prezio hain



Merkatuaren ondoan 60 aparkaleku jartzeko obrak joan zen astean hasi ziren.

altuak dituen merkatu-rik. Lehen ere konparazioak egin izan badira ere, Arrasaten antzerako postuak 1.800.000 pta. Ermuan esaterako 60 postuetatik 20 libre daude eta Udala prezioak jeisteko posibilitatea aztertzen ari da".

Bestalde, lehengo komertziantek azken solairuan kokatu beharra irregularizat jotzen dute: "are gehiago lehen solairuan plataformarik ez dagoela eta baserritarrak sotanoan doazela kontutan hartuz. Gainera zentru komertzial baten lehen-dabiziko printzipioa bankaz gora jartzen da,


eroslearenganako gertutasuna alegia".

Bukatzeko, komertziantek 25 urteko kontzentsioa udaltzaren menpe ez egotea eskatzen dute eta merkatuak funtzionamenduan jarraitzen badu automatikoki prorrogatzea. Bestalde, baldintza pleguetan jasotako hainbat irregularitate azpimarratu dute; "pleguetan postuak 17,70 m²

ditueta jasotzen da baina merkatuaren proiektuan 15,60 m² ditu postu bakoitzak. Gainera, tasen inportea ez da zehazten eta hori ondo definituta egotea eskatzen dugu. Azkenik, administradorearen figura ere ondo zehaztea komeniko litzateke". Beste lokal batera joateko aukera ere aztertzen ari dira idatzia sinatzen duten 7 dendariak.

Beste lokal batera joateko aukera ere aztertzean ari dira idatzia sinatzen duten 7 dendariak

BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, naruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialia
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

◆ Pol-Polaren ski irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak Sestrieresera irteera iragarri du apirilaren 1etik 9ra bitartean. Alojamentua 4 perstonarendako apartamentutan izango da eta prezioa, 44.000 pta. Plaza mugatuak. Izen-ematea astelehenetik ostegunera 7etatik 20.30etara Pol-Polen edota 764851 eta 764396 (Andoni Larrañaga) telefonoetara deituz.

◆ Igerilekuak itxi

Igerilekuak itxi egingo dira martxoaren 4tik aurrera garbiketa orkorra egiteko. Pizinetako arduradunek martxoaren 8an berriz zabaltzea espero dute.

◆ Mendi ibilaldia-konzentrazioa Gatzagan

Deba Bailara Plataforma eta Gatzagako Udalak antolatuta, igandean mendi ibilaldi-konzentrazioa izango da Gatzagan, "Deba Bailarako bide sarearen benetako hobekuntzaren alde eta gutxi batzuren interes ekonomikoak bultzatzen ari diren neurritz kanpoko proiektuaren aurka". Ibilaldirtxoa goizeko 10etan Gatzagatik abiatuko da. Antolatzaileek jendearen parte hartzea eskatzen dute.



Emakume taldeen eskulanak Kultur Etxean ikusgai martxoaren 2tik 13ra.

Emakumearen Astea prest

Hainbat ekitaldi Emakumearen Egunaren inguruan

Udaleko Gizarte Zerbitzuek *Emakumearen Astea* izenburuko ihardunaldiak antolatu dituzte martxoaren 8an ospatuko den Emakumearen Egunaren inguruan. Datorren ostegunean, zine-klubean "Orlando" filmea emango da Noveadesen; igandean, martxoak 6, Bederen-1 antzerki taldeak "Argirik piztu gabe" antzeslana eskeinitu du Zabalotegin 7etan; martxoaren 8an, astearte, Arantxa Lasa eta Xabier Odriozolak "Emakumearen eta gizonaren zapalketa" aztertuko dute 7etan UNEDeko

aretoan eta bestalde, martxoaren 2tik 13ra bitartean Emakume Taldeen eskulanean ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean. Bertan beira, makrame edota igeltsuarekin landutako eskulanak ikusi ahal izango dira.

Bestalde, *Emakumea gaur egungo gizartean* gaiarekin konbokatutako argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea astelehenean bukatuko da. Partaide bakoitzak 4 argazki aurkeztu beharko ditu Irizar Jauregian.

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA

INSTALAZIOAK:

Iturkintza
Berogintza
Gasa

☎ 76 28 04

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594



Argazkian Zunbeltz ondoko lokalean orainarte batutako materiala.

Bosniaren aldeko bilketa martxan

Martxoaren 5ean bukatuko da Bergarako laguntza kanpaina

Bosniaren Aldeko Bergarako Plataformak aurrera darrai galtzen ez diren janari, medikamentu eta hijiene eta osasun materialen bilketarekin. Bertan parte hartu nahi duten guztiek materiala ondoko tokietan utz dezakete: Zunbeltz kafetegiko ondoko lokalean eta Sierben konbentuan (10etatik 12etara eta 6etatik 8etara astebarruan eta 10etatik ordubatera larunbatetan) edota Zubiaurre eta San Lorentzoko estankoetan nahiz Agirrebeña zapatadenda eta Zuhazti kafetegian (komertzio orduetan). Bestal-

de, dirulaguntza eman nahi dutenezkat Bergara Bosniaren Alde taldeak kontu korrante bat ireki du Kutxan (00.1032282.4 zka.).

Arduradunen esanetan, *"bilketa ondo doa, ikastetxe mailan batez ere, baina jendearen aldetik ere mugimendua ikusten da. Gainera azken astean oraindik gehiago espero dugu"*.

Astelehenean hasi zen bilketa martxoaren 5ean emango da bukatutzat. Ondoren, S.O.S. Balkanes erakundearen bitartez material guztia Bosniara eramango da.

◆ Pintadak udal bulegoetan

Astebukaeran ezezagun batzuk pintadak egin zituzten Udalak Barrenkaleko Arostegi Etxean dituen bulegoetan. Pintadak sarrerako XVI. mendeko atean eta kristaletan azaldu ziren.

Sarrerako atea (plateresko estilokoa) Errenazimendukoa da eta balio handia du Xabier Aranburu udal museologoaren hitzetan. Aranburuk errestauratzeko proposamena egin du.

◆ Zezenzaleen irteera

Zezenzaleak taldeak martxoaren 5ean Jose Arriazuk Ablitasen (Nafarroan) duen ganaderia ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera goizeko 9etan izango da Frontoitik; Ablitasen hamaiketakoa eta ondoren torero batek bi behi txuliatuko ditu (nahi dutenek izango dute aukera). Gero, 14.30etan, bazkaria. Izen-ematea (5.000 pta.) astelehena baino lehen Urratsen.

◆ AEKko manifestazioa

AEKko manifestazio nazionala izango da Bilbon martxoaren 5ean. Bergaratik autobusak 4retan aterako dira Frontoitik. Izen-ematea JARDUNen, Polen edota AEKko euskaltegian egin daiteke.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Hezkuntza

Baloreak eta hezkuntza

- Zein da eskolaren zer-egin nagusia?

- Haur eta gazteen pertsonalitatearen garapen integrala omen da gizarteak eskolari leporatzen dion ardura. Lan nekeza benetan.

- Eta erreformak zein irakurketa egiten du?

- Baloreen heziketa beti izan da erreflexio pedagogikoaren gakoa, eta Hezkuntz Sistemaren Erreformak proposatzen duen Heziketa Ereduaren Diseinuak daukan irekitasunak eta malgutasunak inoiz baino indar gehiagorekin ematen digu aukera baloretan zentratutako eskola proiektu bat egiteko.

Baloreen heziketa ezin da arlo espezifiko baten esku utzi, ezta momentu zehatz batzutar mugatu ere; ikasketa arlo guztien programazioetan barneraturik behar du egon.

Pertsonaren garapen integral horren oinarrian balore ohorezko tokia behar dute. Pertsonaren

garapen integral horretan era guztietako gaitasunak landu eta bultzatu behar dira. Baina, eskolak, eta gehienbat gizarteak egiten duen baloreen hierarkizazioak kutsatu egiten ditu gaitasunak, eta guztien artean oreka bat eman beharrean, gaitasun batzuk omen dute lehentasuna.

- Zer dira baloreak?

- Gizakiok, banaka edo kolektibo bezala, sinismen eta proiektu ideletan oinarriturik ekinbide desberdinen artean

"Gure beharrak, nahiak eta desioak ahalik eta azkarren eta errezen beteko dituen da baloretzat hartzen duguna"

egiten dugun aukera bezala definitu daiteke. Hortik aparte, gure beharrak, nahiak eta desioak ahalik eta azkarren eta era errezen beteko dituen da baloretzat hartzen duguna. Eta gaur egungo



ANDONI EXTEBERRIA
(hezitzailea)

gizartean, "errentabilitatea", "dirua", "kontsumoa", daukaguna baino gehiago edukitzea omen da "asetzen" gaituena eta "zoriontsu" egiten gaituena.

Ikasleek gero eta informazio gehiago jasotzen dute komunikabideetatik eta, sarritan, haur eta gazteen portaerak, jarrerak eta baloreak eskola mundutik at dauden

besotan izango dituk kolonia marka (X) hau erabiltzen baduk..."; "Eros ezak kotxe hau eta hire lagunak inbidiaz usteltzea lortzeaz gain, hire barnean pertsonalitate indartsuagoa sentituko duk". Gehiago baloratzen omen da haurrak daramatzan kirol oinetakoen marka haurra bera arduratsu eta jatorra izatea baino; lagunak izateko aukera gehiago omen dauka jostailu asko duenak haur apal, umil eta lagunkoiak baino; kirolean garrantzitsuagoa omen da "aurkakoa" matxakatzea ekipoko lanisla egitea baino.

- Eta hor eskolak zein funtzio betetzen du?

- Eskolak ezin dio daukan betebeharrak sozialari uko egin, ezin du bere eskuharmena dauden balore alternatiba desberdinak aurkeztera mugatu. Balore konkretu batzuekin konprometitu behar du eta besteak arrazoiemenduz eta objetibotasunez kritika prozesupean jarri. Zein balore bultzatu behar diren finkatzerakoan eta ardura horretan lehentasunak zehazterakoan, nahitaezkoa dirudi eskolak aparte haur eta gazteen heziketan eragin zuzena dutenekin ados jartzeta eta elkarrekin lana egitea. Urrunegi joateko, gurasoekin, familiekin.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4 EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

Gizon taldeetan aritu den Xabier Odriozola donostiarrak "Gizonezkoen opresioa" izenburuko hitzaldia eman zuen UNEDen asteazkenean. Gaia interesgarria iruditu zaigu eta berarengana jo dugu gizonezkoen opresioari buruz duen ikuspuntua ezagutu asmoz.

- Gizon taldeak zertarako, Xabier?

- Orain 20 bat urte feminismoa lantzen hasi zen hemen Euskal Herrian eta talde feministek lan polita egin dute ordutik. Emakumea zapalduta dagoela erreibindikatu dute eta gaur egun ideia nagusi bat dago indarrean: gizonezkook zapaltzen ditugula. Eta geuk ere baditugu geure istorioak, gure konportamendua ondorio baten emaitza litzateke, gu ere zapalduta gaudela alegia. Eta emakumeak zapaltzen ditugu gu zapalduta gaudelako eta ziurrenik ez diogu zapaltzeari utziko gu zapalduta gauden bitartean. Egoera hori gaingintzen ahalegindu behar gara eta gizon taldeek horretan lagun dezakete.

- Nork zapaltzen gaitu?

- Multzo bat da. Kultur jokabideak, giza egiturak, ohitura politikoak eta egoera ekonomikoak batipat. Gizarte honetan bizitzeko, gizona izateko,

Gizonak ez al daude emakumeak bezain zapalduak?

Gizonezkoen opresioa

GALDERA HORRI ETA BESTE BATZURI ERANTZUTEN DIZKIO XABIER ODRIOZOLA DONOSTIARRAK



Xabier Odriozola donostiar irakaslea gizon taldeetan aritu da.

multzo horrek modu batekoa izatera behartzen zaitu eta horrelakoa bazara, arrakasta izango duzula saltzen dizute.

- Eta zein da eredia?

- Gogorak izatea, sentimenduak ez adieraztea, harroak, jakintsuak (guztia dakigunaren itxura eman behar dugu), garrantzitsuak, sexualki eginkorrak (matxoak), serioak (parre egiten badugu ez gara gizonak), lehiakorrak eta gainontzekoekin etengabe gure gizontasuna azaltzen

egon beharra daukagu. Hau gertatzen da gizonak ez garelako garrantzitsuak gu garenagatik egiten dugunagatik baizik. Eta ezaugarri horren barruan emakumea zapaltzearen ideia dago. Eta emakumeek guri botatzen digute errua; guk egoera al-

datu nahi dugu baina askotan ez dakigu nola.

- Eta zein izan daiteke konponbidea?

- Sentimenduak eskuratzea eta, era berean, gure gizatasuna azaltzea, gizaratearen aurka doan edozein eraso moztu. Horrekin batera kalte egitearen kontrako kontzientzia etorriko zaigu, giza legea hain zuzen. Eta kontzientzia hori zabalitzen doa; hor dago soldadutza. Lehen ezinbesteko tramitatzat onartzen zen baina orain hor dago insumisioen kasua. Eta ideia nagusia hori da: emakumearen zapalketarekin bukatzeko gizonaren zapalketarekin amaitu behar dugu lehenbizi. Hori da, hain zuzen ere, orain 4 urte martxan jarri ziren gizon taldeen helburua.

"Gizonezkoak ez gara garrantzitsuak gu garenagatik egiten dugunagatik baizik"

• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...


JOSEFINA

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

Kabuzia

ARRAINDEGIA


Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK



Zubiaga
Kale-barria, 18
20.560 Oñati
Tfnoa.: 71 60 74

Zubiaga
Maalako Errabala
20.500 Arrasate
Tfnoa.: 79 19 2
Fax: 79 14 8

UNITED COLORS OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tnoa. 79 50 78 ARRASATE



Etxeko ekipamendu osoa

a, eme... interiores

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

DYA eta Gurutze Gorria laguntza taldeak, laguntza eske

Gurutze Gorria eta DYA gure bailaran sortzen diren istripu eta ezbeharrei aurre egiteko prest dauden bi elkarte ditugu. Biek euren zerbitzuegatik ez dute sosik kobratzen eta boluntarioei esker jarraitzen dute aurrera. Gurutze Gorria San Prudentzian dago eta DYA, berri, Antzuolan bien lan esparrua Deba Garaia izanik.

San Prudentzian Gurutze Gorriak hiru anbulantzia ditu eta orain arte erreskaterako kotxe berezi bat zuen. Baina duela hiru hilabetetik hona kotxe hori, Land Rover bat, zaharkitua gelditu da eta Gurutze Gorrikoek erreskaterako kotxe berri baten premia larria dute.

"Hasi ginenean ez genuen istripu larri bat zegoenean txapa mozteko aukerarik eta Deba Garaitik gertuen zegoen erreskate unitatea Tolosan edo Zumaian zegoen. Horrezaz gain erreskate unitatea edukitzeak mendira edo toki zailetara joatea ahalbideratzen du. Izan ere txapa mozteko ardua subiltzaileek hartu dute, baina sute bat baldin badago subiltzaileek ezin dute bietara joan. Gauza bera gertatzen da mendiko istripuekin anbulantzia normalek ezin dute leku askotara heldu eta beharrezkoa da gure bailaran behintzat erreskate



250 boluntario daude San Prudentzioko Gurutze Gorriko postuan egunak dituen 24 orduak betetzeko.

unitate bat egotea" dio Juan Luis Arana San Prudentzioko postua koordinatzeaz arduratzen den arrasatearrak. Erreskate Unitatearen beharra Ara-

nak dioenez eguneroko jarduerak erakusten du. "Duela gutxi Oñatin baserritar bat pista batetik behera erori zen eta Osakidetza

bati deitu zioten. Hau abal zuenean heldu zen, baina artean baserritarrek mendian jarraitzen zuen. Hona deitu ziguten eta esan genien ez gurela erreskate unitaterik eta gertuen zegoena Urretxukoa zela. Azkenean zauritua traktore batean jeitsi behar izan zuten".

"Erreskate unitatea edukitzeak mendira edo toki zailetara joatea ahalbideratzen du"

JUAN LUIS ARANA,
SAN PRUDENTZIOKO GURUTZE
GORRIKO KOORDINATZAILEA

Mankomunitatearen aldetik laguntza gutxi

Gurutze Gorriak Deba Garaian 250 boluntario inguru ditu eta 3 anbulantzia dituzte. Eguneko



Antzuolako DYAk laister 11 urte beteko ditu.

24 orduetan 8 pertsona-tako 3 errelebotan banatuta dago jendea San Prudentzian eta beste 8 pertsona euren etxe edo lan-tegietan lokalizatuak daude "buskei" esker.

Urte osorako 5 miloi-tako aurrekontua dute eta Mikel Garagorri, Deba Garaiko Gurutze Gorriaren presidenteak, Mankomunitatearen aldetik jasotzen duten laguntza eskasa dela salatu du. "Mankomunitatean 7 herri daude sartuta eta jasotzen dugun diru laguntza eskasa da eskaintzen dugun zerbitzurako. Gainera kontzejal askok ez dakite ze zerbitzu es-

kaintzen dugun. Bakarririk Udal bakoitzak beren herriko emergentzia plana egin behar duenean deitzen digute, bestela urte osoan zehar ez digute kasorik egiten. Nola ez diegun inoiz ere buts egin..."

Gurutze Gorrikoak diruz eskas dabilta, baina horrek eurek esan digutenez zerbitzuaren kalitatean ez du eraginik. "Guk hiru ambulanzia ditugu eta ekipamendu aldetik punta puntan gaude. Gure etxean ez dugu agian berrikuntzarik egingo diru guztia ambulanziaz hobetzeko erabiltzen baitugu. Guk

gure egoitzan deia jaso eta Deba Garaiko herri urrunenera 15 minutuan joateko kapazitatea dugu".

Egoitzarekin arazoak

Orain San Prudentzian duten lokala ez da eure-


na, UCEMena da hain zuzen ere. "Lokala Cerrajerak utzi zigun eta hartu genuenean oso txarto zegoen. Bakoitzak abal zutena eginez, kontutan izan hemen ez zela profesionalik sartu lanak egitera, egoitza txukuntzea lortu genuen. Orain Cerrajerak egoitzagatik 4 miloi pza eskatzen dizkigu eta guretzat garestiegia da. Gaur egun etxea ikusten baduzu, 4 miloiak balio ditzake, baina guk hartu genuenean honak ez zuen ezertarako balio. Gainera ordenazioz kanpo dago eta ustedut ez duela etxeak diru hori balio. Orain Cerrajerakoekin harremanetan gaude, baina ez dakigu zer gertatuko den dio Garagorrik.

DYA boluntario faltan

DYAk gure bailaran Antzuolan du egoitza eta dagoeneko 11 urte beteko ditu laister. DYA Antzuolan salbamendu ikastaro bat antolatu zenean

"UCEMek lokalagatik 4 milioi pza. eskatzen dizkigu eta guk hori ezin dezakegu ordaindu"

MIKEL GARAGORRI
DEBA GARAICO GURUTZE GORRIKO
PRESIDENTEA



20 lagun daude Antzuolako DYako postuan. Argazkian Luis Mari Lakuntza irrati transmisoretik berba egiten.

sortu zen. "Ikastaroan zehar konturatu ginen bazeagoela beharra gure baidarlaran jendeari laguntzeko eta ikastarotik irteerako talde batek Udalaririk lokala eskatu genion eta honek utzi zigun eta hemen daramagu 11 urte" dio Luis Mari Lakuntza DYako boluntario antzuolarrak. Antzuolan 24 pertsona daude eta astean zehar arratsaldetan egoten badira, asteburutan 24 orduak betetzen dituzte.

Horretarako ikastaroak antolatzen dituzte eta duela urtebete inguru erositako ambulanzia berri berria dute. "Dirua gure aldetik bilatu behar dugu, subentziorik ez dugu jasotzen eta bi milioipzarekin moldatu beharra dugu. Hortaz aparte boluntario falta dugu, hemen asteburuan, jaietan etab. izan behar dugu eta badakizu jendeak diru barik lan egitea..." diosku Lakuntzak.

DYAn sartzeko borondatea eta ikastaro bat betetzea besterik ez da behar. Baina jende falta arazoa bada, koordinazio aldetik ere badute arazorik Lakuntzak adierazi digunez. "Gu 088 (SOS Deiak) saretik kanpo gaude eta Ertzantzak gure inguruan (Deba Garaia) istripu bat dagoenean Gurutze Gorriari deitzen dio. Horrela istripu bat Antzuolan izaten bada, SOS Deiakoe San Prudentziara deitzen dute eta gu hemen izanda ez dut logikoa ikusten".

Erreportaia honetako rrialdeetan argi geratu den moduan, oraindik ere bada gure artean, gizarteari laguntzeko musutruk lan egiteko prest dagoen pertsonarik.

93an Gurutze Gorriak Bergarara egindako irteerak

• KIROL ISTRIPUA	20
• ETXeko ISTRIPUA	12
• LAN ISTRIPUA	11
• OINEZKOEN ISTRIPUA	20
• TRAFIKO ISTRIPUA	37
• KAUSA EZEZAGUNA	2
• GAIXO LARRIAK	96
• SUTEA	1
• ERITETXEEN ARTEKOAK	2
• HILTZORIAN ZEUDEN GAIXOAK	1
• BESTEAK	4
• ERREPIDEKO ERRESKATEA	2
• ZERBITZU SOZIALAK	1
• ZERBITZU BEREZIAK	24

Deba Garaian eramandako pertsonak

ZAURIRIK GABE.	1
ZAURITU ARINAK.	546
GRABEAK.	185
HILDAKOAK.	29
GUZTIRA.	761



San Prudentzioko Gurutze Gorrian dituzten 3 ambulanziaz Europa mailako onenetarikoak dira.

Ordezko Zerbitzu Sozialari buruz...

Intsumisoeak askotan leporatu izan diote Gurutze Gorriari Ordezko Zerbitzu Sozialarekin Estatuarekin kolaboratzen dutela. Gurutze Gorrikoak ez datoz bat intsumisoen iritziarekin. "Hona gazteak Ordezko Zerbitzua egitera euren borondatez etortzen dira eta hemen sartzen direnean Lan eta Osasun Ministeritzaren menpe daude. Hona ez dira militarrik ezertara etortzen" dio Juan Luis Aranek. Bere aldetik Mikel Garagorrik hurrengo adierazi digu: "Badira objetoreak ez dutenak soldazkura joan nahi, baina urtebetez gizarteari zerbitzu bat prestatzeko borondatea agertzen dute. Guk intsumisoen jarrera ulertzen dugu eta ez daukagu ezer euren aurka, baina eurek ere ulertu behar dute badagoela jendea zerbitzu hori emateko prest dagoena".

14 urte...

Jose Mari Etxaniz eta Iñaki Ibabe bergararrek 14 urte bete dituzte kartzelan; eurekin batera atxilotu zuten Josuren Murgizu 11 urte izan da espetxeratua eta orain asteen hiru egunetan kartzelara lo egitera joaten da

Pasa den asteen bete zituzten Jose Mari Etxanizek eta Iñaki Ibabek 14 urte espetxean. Eurek omentzeko herriko Amnistiaren aldeko komiteek hitzaldi bat eta pilota jaialdia antolatu zuten. Hurrengo orrietan horri buruzko informazioa eta bi presoen senideekin izandako elkarrizketa irakurtzeko aukera duzue.

ESPETXEAN

Pasa den ostiralean jokatu ziren Udal pilotalekuan Jose Mari Etxaniz eta Iñaki Ibabe preso bergararren omenezko pelota partiduak.

Lehen partiduan Iturbe eta Samaniegok 18 eta 17 irabazi zieten Muruamendiraz I eta Gutierrez. Bigarren partiduan, Reyes Azkoitia eta Joseba Askasibarren artekoan, Reyesek, errebantxa hartuz, 18 eta 6 irabazi zion Josebari. Partidu honetan ikusleek, 400 ikusle inguru, apostuak egin zituzten eta ez zen asmatzailerik izan, gehienek Josebaren alde egin zuten apostu eta. Azken partiduan Muruamendiaraz IIak eta Oregik 22 eta 15 irabazi zieten Etxaniz eta Oruesagastiri. Pelota partidu hauekin amaitu ziren Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteek antolatutako omenaldi ekitaldiak. Bildutakoek oso gustora pasa zuten jaialdiak iraun zuen bi ordu t'erdi



7 urte pasa eta gero, berriz ere Reyes eta Joseba zuriz jantzita.

inguruak.

Senideekin berriketan

Partidu ostean Tere Guridi, Ibaberen ama eta Mila Etxanizekin, Jose Mariren arrebarekin, berba egin genuen bi preso bergararrek bizi duten egoerari buruz. Dagoene-

ko 14 urte bete dituzte eta Etxaniz Cadizeko Puerto de Santa Maria 2an 34 urteko gartzela zigorra betetzen dagoen bitartean, Ibabe Orenseko espetxean dago 32 urteko kartzela zigorra betetzen. Mila Etxanizek adierazi digunez bere anaia egoera ezin larriagoan dago.

"Dagoeneko 4 urte daromatza Puerton eta sartu zutenetik zigor zelda batean dago. Teorian zelda horietan astebete bakarrik egon behar dute, baina nire anaia sartu zutenetik dago hor. Egoera juezaren aurrean salatu dugu, eta arrazoia eman digun arren, espetxeko

zuzendariak ez du bete-
tzen Epailearen agindua.
Zeldan bakarrik bi pra-
ka, bi liburu eta edozer
gauzatatik bi ale baka-
rrik izan ditzakete eta ja-
tekoa 4 urte hauetan ate-
petik pasatzen diete.
Puerto 2ko espetxean ez
dago giza eskubiderik,
ban bertako zuzendariak
agintzen duena egiten
da, berau epaileen gai-
netik dago eta". Ibabe,
bere amak esan digunez
Orensen egoera hobean
dago, nahiz eta astean
behin zeldaz aldatzen du-
ten bere semea.

Dispertsioaren aurka

Etxaniz 14 urte haue-
tan Carabanchelen, So-
rian, Puerto Santa Maria
lean, Herrera de la Man-
chan, Alcalan, Cordoban,
Sevillan eta Puerto Santa
Maria 2an izan dute eta 5
aldiz ospitalera joan be-
har izan du. Ibabe, berriz,
Carabanchelen, Sorian,
Puerto Santa Maria 1, He-
rrera de la Mancha, Lan-
graitze, Alcalá eta Oren-
sen izan dute. "Kartzela
batetik bestera eramaten
dituzte eta kartzela ba-
tzuetan beste batzuetan
baino bobeto tratatzen
dituzte euren artean des-
berdintasunak sortzeko.
Gainera dispertsioarekin
presoak zigortuz gain, gu
senideok ere zigortzen
gaituzte. Ni hilabetean
behin Orensera joaten
naiz eta hortarako, ba-
karrik, taxisean Zuma-
rragara joaten naiz eta
ban tren hartu eta
Orenseraino. Han espe-
txeraino taxia hartzen
dut eta horrek diru eta
denbora galtze izugarria
dakar. Guk, legeak agin-
tzen duen moduan, gure
senideak euren zigorra
betetzen Euskal Herrian



Tere Guridi eta Mila Etxanizek 14 urte daramatzate kartzelaz-kartzela.

nabi ditugu" dio Guridik.

Senideak elkarte

Kartzelan pasatutako
urteetan Etxanizek Kaze-
taritzako kurtso batzuk,
Magisteritza ikasgai ba-
tzuk, baina bere arrebak
dioskunez "Puerton da-
goenetik ezin izan ditu
jarraitu, bertako zuzen-
dariak ez digu libururik
sartzen uzten eta UNED-
etik bidaltzen zioten ma-
teriala ere ez dute sar-
tzen uzten".

Ibabe, berriz, Lan-
graitzen zegoenean infor-
matika ikasketak hasi zi-
tuen eta oraindik ere,
nahiz eta bi urtetan ja-
rraitzerik ez izan, infor-
matika ikasten du. Bes-
talde duela bi urte, euskal
presoen senitartekoek,
Senideak elkarte sortu
zuten. "Horrekin gure
helburua, edozein ikus-
pegi politiko alde batera
utziz, gure senitartekoen
eskubideak defendatzea
da. Senideak elkarte le-
geztatua da eta beste

elkarte batek bete behar
dituen baldintza guztiak
betetzen ditugu. Baina
instituzioen aldetik la-
guntzak eta jaso behar
direnean, nahiz eta le-
galak izan eta beste el-
karte batzuk betetzen di-
tuzten baldintzak bete,
ez dugu inongo lagun-
tzarik jasotzen" dio Gu-
ridik.

kenetan Langraitzera lo
egitera joan behar izaten
du. Murgizu Sorian, Ca-
rabanchelen, Puerto de
Santa Marian, Herrera de
la Manchan, Alcalan eta
Langraitzen izan dute eta
kartzelan kazetaritza
ikasketak (publizitate
adarrean) amaitu ditu.
Orain mantenimentu ar-
duraduna da Udal Eus-

"Senideak elkarte legizatua da eta bere helburu bakarra presoen eskubideen alde lan egitea da" ETXANIZ ETA IBABEREN SENIDEAK

Murgizu 3. graduan

Bestalde, Josuren
Murgizu, Etxaniz eta Iba-
berekin batera atxilotu-
takoa 11 urte t'erdi pasa
ondoren irten zen legea-
ren 45. artikuluari esker
eta astean zehar astele-
hen, astearte eta asteaz-

kaltegian eta eskola uz-
ten duten ikasleei klaseak
ematen dizkie. Nahiz eta
astean hiru egunetan
kartzelara lo egitera joan,
oraindik ere bere burua
presotzat du. Berak esan
bezala "batzutan giro po-
litikoaren arabera trata-
tzen naute".

Berrigazte

ikasleen

orriak

Ipintza Batxilergo Institutua

4. Zenbakia

amodioz...

Zuk nahi baduzu...

Azkenean ere gazteoi eskaini digute gure ideiak eta gure inguruan gertatzen diren gertakizunei buruz hitzegiteko aukera.

Bi orrialde hauak ikastetxe desberdinez beteko dira, aste bakoitzean talde bati tokatuko zaio, guri, institutoko taldeari orain tokatu zaigun bezala.

Bai, eta aurkezpen edo sarrera antzeko hau gin ondoren eta San Valentin eguna orain dela gutxi izan denez, hona hemen maitemindu baten deklarazio hau.

Ziur nago nor naizen badakizula edo behintzat gero gogoratuko zara. Osintxukoa naiz, autobusean beti zure atzean joaten naiz eta kristaletik begiratzen zaitut. Ez bazenekien, jadanik jakingo duzu nor naizen.

Ziur nago zer esango dizudan pentsatzen ari zarela, baina hauxe esan nahi dizut: urtean zehar autobusean egunero ikusi zaitut eta ez naiz inoiz mintzatzeko gauza izan, baina gaur saiatu naiz eta gutun hau idatzi dizut.

Karta edo gutun honetan nire sentimenduak adierazi nahi dizkizut. Nik ez zaitut ezagutzen baina nire bihotzak biok bata bestearantzako eginak gaudela esaten dit. Horregatik nirekin irtetzeko proposamena egiten dizut gutun honen bitartez, mesedez egitan har ezazu. Eta zure bihotzak ez badizu berdin esaten, atzera bota ezazu proposamena.

Barkatu ortografia faltengatik.

Agur.



Beno! ikusten duzuenez maitemindu bat dugu gure artean, beno nik uste neska konturatuko zela honek kero eta hemen doakizu zure maiteminduekin elkartzeko modu bat.

Aizazu lagun ez itzazula inoiz galdu esperantzak maitasunean zuri argituz daukazu eguzki printzak amodioan soberan daude lotsa, beldur ta zalantzak askoz gehiago balio bait du norberaren konfidantzak.

Autobusean ikusten duzu egunero-egunero nahi ta ezinak, ezin ta nahi ez al zaitu jartzen bero? nere ustetan lortuko duzu gogoz saiatu ezkerok hala damurik ez duzu izateko denbora pasa eta gero

AINHOA



udarako aukera

Udalekuak

Ekainean, kurtsoaren amaierara iristean, bakoitzaren irudimenak, gogo eta ilusioak oso bide ezberdinak hartu ohi dituzte. Batzuek eguzkipean sufritzen egoteaz gain, mendira irteeratzeko batzuk egingo dituzte.

Izango dira denboralditxo bat ohiko bizilekutik at pasatuko dutenak ere. Eta, noski, ez da faltako udara Euskal Herrian barrena, jairik jai, juergarik juerga, igaroko duenik.

Baina badago udara ondo igarotzeko beste modu bat ere; ez udara osoa, baina bai udara osoan zehar gogoratuko dituzun 15 egun: Udalekuean, Euskal giroa, lagun jatorrak, aktibitate atseginak... Bertara hurbiltzen den edonork egiten du ahal den eta ondoen igarotzeko ahaleginik haundiena: zoragarriak izaten dira erreko freskatuak, mendian igarotzen diren gauak, izarrez lagundutako gaubelak... Guztia lagunartean, 15 egun horiek igaro ondoren ere, lagun izaten jarraituko duzun jende jator batekin.

Bergaran, egia esan, ez dago udalekuek joateko ohitura gehiegirik, batez ere 14-18 urte arteko gazteen artean.

Kaixo lagunak!

Badirudi kurtsoa aurrera doala eta jadanik bat baino gehiago udaran pentsatzen aurkituko da.


Badaude egun batzuk eguzkia atera eta temperatura igotzen denean, pasatako udara gogoratzen digutenak, orduan leihotik begira jarri, eta udalekuean pasa nituen egunak datozkit burura. Aurreko egun batean, etorri zitzaigun udalekuek joateko aukera ematen zigun informazioa, nik dagoeneko pentsatuta daukat, baina seguraski zuetariko gehienok ez duzue nahiko argi izango eta horretarako hemen daukazue nire esperientzia bat.

"Zoragarriak izaten dira erreko freskatuak, mendian igarotzen diren gauak, izarrez lagundutako gaubelak..."

Nik probatzera animatzen zaituztet, behin probatu ezkerok ziur nago hurrengo urteetan ez dela publizitate beharrik izango. Norbait animatu ezkerok, denboraz ibiltzea gomendatzen diot, lekua ziurtaturik izan dezan. A, informazioa, udaletxea aurkitu ahal izango duzuela suposatzen dut. Hori bai, ez diezadala gero inork azkenengo egunean negarrez etxeratu zelako errurik bota, eh!

NI NEU.

Zer deritzozu Jose Amedo GALEkoa libre uzteari?




Bingen Aiastui
29 urte, langilea

Oso gaizki. Kondena osoa bete beharko lukeela uste dut, inolako pribilejiorik gabe.



Izaskun Iturbe
29 urte, langilea

Agrabio konparatiboagatik ez dut ondo ikusten. Hori irtetzen bada, besteak zergatik ez?




Txomin Alijas
45 urte, langilea

Gaizki. GALEn subentzia, Estatuaren terrorismoa, Deretxo eta beste hainbat gai sakonki aztertu beharko lirateke.



Begoña Valle
28 urte, langilea

Egiten duenak ordaindu egin behar du eta beraz, txarto ikusten dut kalera irtetzea.



Anton Valverde
39 urte, medikua

Gutziz beltza iruditzen zait, zerbitzuen ordainketa dela ematen duelako.



Maritxu Errasti
63 urte, jubilatua

Txarto. Nahiz eta gizon oso inportantea izan, besteak duten eskubide berberak eduki beharko lituzke.

Mekolalde

Mekolalde auzoa, tfnoa: 76 59 14

AUTOAK

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

HAGIN KLINIKA BERGARA

LEHEN AZTERKETA DOAN

Bidekurutzeta, 6 2. (Lehengo Notarian)
☎ 76 05 77

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Lehen eta orain

Gizarteak berezko eta ezinbesteko ditu auziak eta iritzi-ezberdintasunak, eta horientzako guztientzat onurakor izan daitezen konponbideak aurkitzea da hain zuzen, edo izan behar luke behintzat, politika-ihardunaren helburua. Horietako auzi bat, laster bizi-bizi izango dugun auzi bat Maltzaga-Urbina elkartze-bide azkararena dugu. Batzuen iritzi hori ez litzateke Euskal Herriaren onerakoa, beste batzuentzako irabazpide baina, bertako izadi-oreka hondatuko luke, eta Euskal Herriko elkartze bideen aldetikako beharrak betetzeko oraingo errepideak egokiagotzea aski litzateke.

Beste batzuk uste dutenez, berriz, Europan egoteak ekar diezagukeen ekonomiazko hazkundeak Atlantiko-aldeari muzin egin eta Meditarreneo-aldera lerratzerik nahi ez badugu, bideguren, autobide edo dena delako hori ezinbestekoa gertatzen da. Arretaz aztertu eta bi iritzion alde onak eta txarrak haztatuz erabaki beharreko arazoa, noski. Euskal Herrian lehen ere horrelatsuko aukerak egin beharra izan da, eta Norte-ko trenbidea egin zutenekoa datorkit gogora. Goiherri aldean sarri entzun ahal izan dudanez orduan ere izan ziren hori kaltegarria zela ziotenak, eta horiek jarritako eragozpenen ondorio izan omen zen adibidez Zegama eta Segura bezalako herriak trenbidetik alde gelditzea.

Orduan, ordea, jauntxoak eta apaizek izan omen ziren, bere aginteari eusteko xedez, eskualde horren ekonomiazko hazkundera atzera-araztea ekarri zuen ezezko jarrera horren aldeztailak. Orain oso bestela gertatzen denaren itxurak hartzen dizkiot.

Josu OREGI



Lakabe

Telebistako saio batean Nafarroako Lakabe herriari buruzko erreportaiak ikusteak, ezagutzen dugun bizimoduaz aparte badaudela beste posibilitate batzuk ikustarazi zidan.

Lakabe berpiztutako herri txiki bat dugu, Itoizko urtegi zentzugabe hori egin nahi den tokitik oso gertu. Lagun talde bat bildu eta ordurarte ezagutzen zuten guztia atzean utziz (lana, ikasketak, hiria...) eta proiektu berri baten ilusioz, bertara jo zuten.

Kolektibo batean bizitzeak dakartzan arazo guztiak azaldu zizkiguten, baita egoera horretan gizon-emakumeen artean berdintasuna mantentzearen zailtasuna ere. Normala denez, hasierako proiektu hori martxan jartzean, espero ez zuten hainbat arazorekin aurkitu ziren. Bakoitzak bere arlo konkretuan zuen ezagupena (kimiko, zurgin, etab...) praktikan jarritz, azkenik talde batean eta nolabait euren kabuz bizitzea (autonikuntzaz baliatuz, argi indarrik gabe etab.) posible dela frogatu dute.

Lakabera joan diren pertsona hauek gizartea aldatzeko mugimendu ezberdinetan lan egiten zuten (talde antimilitaristak, feministak...). Momentu batean, gizarteak planteiatzen dituen arazoei aurre egiteko zerbait sortzearen beharra ikusi zuten eta horrelaxe atera zen Lakabera joateko ideia.

Askotan utopia dirudien zerbait errealitatea bihur daitekeela konturatzeak pozten nau, bereziki gaur egun bizi ditugun balore eskasak kontutan hartzen baditugu.

Jon Ander BENGOA

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN
- EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



TOSHARE

• ILEAPAINDEGI MISTOA •
• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA



**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50



Aranzabal Coruñaiko Deportivoako Alfredo jokalariaarekin burrukan igandean.

EL CORREO

Bigarren partidua Realarekin


Agustin Aranzabal bergararra bere bigarren partidua jokatu zuen Realarakin igandean Anoetan justu bere debutaren lehen urteurrenaren bezperan eta bertan ere **Deportivo**ren aurka. Realak orduan bezala, galdu egin zuen liderraren aurka (0 eta 1), partidua txarra jokatu. Dena den, kikin kazetari guztiek goraipatu egindute egunotan bergararra Santsen eta Realaren entrenamenduetan egiten ari den lan bika. Ea Agustinen lehen garaipena Realarekin laister heltzen den...

Komisaldegia berrizten

Ertzantzaren komisaldegiko pareta, hesia eta sarrera berrizteko lanetan dihardute.

Kanpoaldea oso egoera txarrean zegoela eta, Gobernu Batzordeak Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailari berrizte-lanak egiteko baimena eman zion.

Aste honetan bertan hesia egiteko lanak amaitu eta erreja berria (aurrekoaren berdina estetika mantentzeko) jartzen hasteko asmoa zegoen. Dударik ez, komisaldegia kanpo itxura hobea hartuko du.



LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

BERGARESA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarako
Uriarte 8, BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77


Urrezko eztaiak

Agustin Inarra eta **Florentina Ugaldeak** beren ezkontzaren urrezko eztaiak bete zituzten igandean, otsailak 20. Florentina elorriotarra denez, bertako San Agustin elizan ezkondu ziren orain 50 urte Florentina eta Agustin. Igandean, fetxa berezi hori zelebratzeko meza entzun eta, ondoren familiartekoekin, batera bildu ziren Lasa jatetxean bazkaltzeko, 35 lagun bildu zirelarik. Zorionak Agustin eta Florentinari eta ondo segi!!



Balentziaga sarituta

Juan Balentziaga bergararrak 2. saria eta Proamiren Sari Berezia lortu du Gutxituendako **Espaniniako III. Margo Txapelketan**. Guztira, Estatu osoko 800 gutxitu inguruk parte hartu dute eta Balentziagak 100.000 pta. eta diploma jaso du sari gisa. Aukeratutako lanen erakusketa igandera arte egongo da ikusgai Gasteizeko Sala Dato 14-16 erakustokian.



Balentziaga saritutako bi lanen ondoan.

Zertan dibardute ba?



German Larrañaga

Logroñoeko La Voz de La Rioja egunkarian hasi da lanean. German Larrañagak 25 urte ditu eta Informazio Zientzietako lizentziatura lortu zuen Iruñeako Unibertsitatean. Joan den astean ekin zion lanari Logroñon eta bertan maketatzailerik eta infografo lanak (grafikoak ordenadorez egitea) beteko ditu datozen 6 hilabeteetan. La Voz de La Rioja irailean kaleratu zen eta oraingoz 5.000 ale kaleratzen ditu egunero, Navarra Hoy egunkariaren errotatiba erabiliz. Logroñora joan aurretik, German Larrañagak hainbat lan bete ditu Marca kirol egunkarian, Europa Press Televisionen edota Ariz-Ondo Bergarako hilabetekarian.

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA


Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Leire Ibarzabal

Huajoloteetako "jenerala"

Migel Altuna Institutuko 17 urteko ikasle honek bibolina jotzen du Musika Eskolako Orkestan. Huajoloteen "jenerala", herriko saltsa gehienetan murgilduta ikus dezakegu.

- Huajoloteak ala Orkesta?
- Biak.
- Euskal giroa ala mexikarra?
- Eusko-mexikarra.
- Rantxerak ala euskal rocka?
- Rantxerak.
- Los Panchos ala Negrete?
- Jorge Negrete.
- Coronitak ala San Miguelak?
- Coronitak.
- Eskolako mahaia ala atrila?
- Atrila.
- Ikasle ona al zara?
- Nahiko txapuzera baina iristen naiz.
- Matematikak ala Hizkuntza?
- Hizkuntza, literatura gustatzen zaidalako.
- Berritsua ala ixila?
- Ez oso ixila.



"Eusko-mexikar giroa gustatzen zait baina rantxerak euskal rocka baino gehiago gustatzen zaizkit. Telebistarik ez dut ikusten; Cassandra telenobela bakarrik jarraitzen dut"

- Gonak ala prakak?
- Prakak.
- Bakalau musika bai?
- Ez.
- Egin duzun azken trastada.
- Ez naiz jendeak pentsatzen duen bezain gaiztoa.
- Noiz konfesatu zara azken aldiz?
- Lehen jaunartzea egin aurretik.
- Garizuma betetzen duzu?
- Ez.
- Asteko egunik onena eta txarrena.
- Ostirala eta osteguna.
- Egin dizuten azken oparia.
- Kolonia bat (amak).
- San Valentin ospatu zenuen?
- Akordau ere ez nintzen egin.
- *Sensacion de vivir ala Colegio Mayor?*
- Ez dut telebistarik ikusten, *Kassandra* bakarrik.
- Idazle bat.
- Lazarilloren egilea.
- Ze nahi duzu izatea etorkizunean?
- Datorrena datorrela, hartu beharko dut.
- Nora joango zinateke oporretan?
- Mexikora.
- Norekin?
- Nik dakidan batekin.
- Gezurren bat esan al diguzu?
- Ez dut uste.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,
ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK,
HI-FI EKIPOAK,
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



NORA PALMITANOk jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAk emandako saria.



Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Askotan zeharo normal eta arruntena egiten zaigun gauzari buruz pentsatzen jarri eta ustekabeak agertzen dira. Hala, badakigu San Pedro esandakoan lehenengo Aita Santua izan zela eta, bakarren batzuk, arrantzalea izan zela Galileako itsasoan. Horren ondoan Santa Marina (Santamaiña) diogunean Oxirondon eliza duela jakiteaz aparte oso gutxi dakite nondarra izan zen. Aste honetako galdera hauxe duzue:

Nongoa zen Santa Marina?




izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke




zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

NORA PALMITANO

Berriotxoako Balentinen ama, Monika, Antzuolakoa zela adierazten genuen aurreko Galde Debalden. Baina, zein baserritan jaiotakoa zen galdetzen genuen eta erantzuna, **Urruti baserria** da. Erantzun ugari jaso ditugu, baina bakar bat saritu behar eta oraingoan **Nora Palmitanori** tokatu zaio. Berarentzat izango da, beraz, **ZUMELAGA JATETXEA**k emandako sari bikaina.

Zorionak **Norari** eta besteek ez etsi, segi jokatzten.

HERRAN ETXEA



Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4 ☎ 76 37 53

- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- BERO-AKUMULADOREAK

FAGOR



JANTZIDENDA

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16

KIROL EMAITZAK

FUTBOLA

- Prefente maila:
Bergara 4-Munibe 1
- Lehen Erregionala:
Ordizia 1-Bergara 1
- Lehen mailako jubenila:
Bergara 3-Orioko 1
- 2. mailako jubenila (Kopa)
Billabona 2-Bergara 1
- Lehen mailako kadetea:
Aurrera Ond. 2-Bergara 0
- 2. mailako kadetea:
Bergara 1-Almen 1
- Lehen mailako infantila
Amaikak Bat 2-Bergara 0

ESKUBALOIA

- Senior mutilak:
Bergara 26-Carmelo 20
- Kadete mutilak:
Bergara 18-Hondarribia 22
- Kadete neskek
Zarautz 8-Bergara 16

SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak:
Andraitz 68-Bergara 69
- Infantil mutilak:
Aranzadi Ikastola 40-
Antzuola 30
- Kadete neskek:
Bergara 27-Ordizia 40

PELOTA

- (Euskal Liga)
- Jubenilak binaka:
Garcia (Berango) 15
Iker Muruamendiaraz 18



Eskubaloiko senior taldeak datorren urtean Liga Nazionalen jokatu ahal izateko igoera faserako sailkapena lortu behar du lehenengo. Larunbatean puntu bakar batetara dagoen liderraren aurka jokatu du Labegaraietan. Bestalde, Bergarako kadete neskek Euskal Liga jokatu dute datorren urtean.

Partidu erabakiorra zapatuan

Eskubaloiko gizonetzkoen talde nagusiak Liga Nazionalera igo ahal izateko hil ala biziko partidua jokatu du Arrasateren kontra

Liga amaitzeko hiru partidu bakarrik gelditzen direnean, denboraldiko neurketa garrantzitsuenetakoa jokatu du Arrasateren (liderra) aurka larunbatean 17.45etan Labegaraieta Kiroldegian Bergara K.E.ko eskubaloiko saileko senior taldeak. Josetxo Muniategik entrenatzen dituen mutilek arrasatearrak puntu bakar batetara dituzte eta Pasaitarra taldearekin berdinduta aurkitzen dira 30 punturekin. Liga amaitzeko hiru partidu geratzen zaizkie eta bi aste hauetan Arrasateren aurka etxean eta Pasaitarraren aurka Pasaian jokatu behar dute. Bestalde, pasaitarrek eta arrasatearrek

elkarren kontra jokatu dute ligako azken partidua. Igoera fasea jokatzeko aukera ligan lehenengo bi postuetan sailkatzen direnak izango dute bakarrik; beraz, hiru taldeetako bat kanpoan geratuko da. Zapatuko norgehiagokari dagokionez, esan behar da Arrasaten errefuxiatuta dagoen Aleksandar Sacvic bosniar jokalaria fitxatu berri dutela mondrauetarrek. Yugoslavia zaharreko lehen mailan jokatu zuen Sarajevoko taldearekin. Bergararrek puntu bategatik galdu zuten Arrasaten jokatuak joaneko partiduan, horregatik beharrezkoa zaie larunbatean hutsik ez egitea. Ez da erraza izango...

MEMESA

P
phanton

IRIMO

ARRASATE 79 42 22 ARETXABAETA

SFK

1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Errotagain	23	12	11	1	0	67	12
2. Madura	22	11	11	0	0	45	12
3. Bildurbarek LAM	18	12	10	0	3	63	48
4. Toki Eder	17	12	8	1	3	70	30
5. Angiozar	15	12	6	3	3	57	34
6. Mongatxurra	15	12	7	1	4	50	28
7. Bar Canalejas	13	12	5	3	4	35	37
8. Arloteak	13	12	5	3	4	35	43
9. Usoa	12	12	5	3	4	37	38
10. Ezinleike	11	12	4	3	5	36	48
11. Os Jardineiros	10	12	4	2	6	49	58
12. Guadalest	9	12	3	3	6	26	45
13. Soropotroak	8	12	4	0	8	36	43
14. Nahikari Hool.	8	12	3	2	7	28	39
15. Shaktale	7	12	3	1	8	27	67
16. Ogizun Okind.	7	11	2	3	6	27	39
17. Kriston Potruak	7	12	3	2	7	30	43
18. Kriterium	7	12	2	3	7	32	47
19. Akort Ariznoa	6	11	2	2	7	33	56
20. OH Zerezos	6	11	3	1	7	35	53

2. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	31	17	15	1	1	93	39
2. Hartu Zamat	29	17	14	1	2	86	45
3. Ufala	27	17	13	1	3	93	42
4. Etxagi	27	17	13	2	2	97	48
5. Ozaeta	26	17	12	2	3	102	41
6. Kalimotxo	26	16	13	0	3	78	40
7. Revienta	26	17	13	0	4	70	45
8. Eri	22	17	10	2	5	77	54
9. Ube Bikoitza	22	17	10	2	5	85	65
10. Amozkibar	19	16	9	1	6	67	43
11. Ari Ari	18	17	9	0	8	73	81
12. Igandekoak	16	16	8	0	8	60	61
13. Krai	14	16	7	0	9	68	66
14. Egoki	14	16	6	2	8	64	65
15. Txipiron	14	17	5	4	8	51	63
16. Paok San Juan	13	15	6	2	7	49	49
17. Matalascañas	13	16	6	2	8	44	50
18. Kirolzaleak	13	16	6	1	9	61	78
19. Labegarieta	13	17	5	3	9	37	88
20. Aldoka Maldoka	12	16	5	2	9	40	65
21. Pata Negra	11	17	5	1	11	47	86
22. EH Biterrak	9	17	3	3	11	44	69
23. Los Txupeta	8	17	3	2	12	35	66
24. Euxebio II	4	16	2	0	14	36	97
25. K.K. Usaina	0	16	0	0	16	28	118

Txinpartak

▼ Errotagain taldeak berdindu egiten zuten joan zen aste-bukaeran Guadalesten kontra. Horrela bada, lehen mailan partidu guztiak irabazi dituen talde bakarra Madura dugu. Errotagainek baino partidu bat gutxiago jokatu duen arren.

▼ Labegarieta-ko futbito txapelketan ari direnak, ejerzizio pixkat egitera eta ondo pasatzera joaten dira kiroldegira. Batzuk beste batzuk baino serioago hartzen dute lehia, honela goiko postuetan daudenean ardura haundiago jartzen dute astebukaera guztietan ahalik eta forma onenean egoteko.

Batzutan kirola egiteaz gain zerbait aldarrikatzeko denbora ere hartzen dute ekipo batzuk. Bildurbarek LAM taldeak esate baterako joan zen astebukaeran Shaktaleren aurka jokatu zuen partiduan, Joxe Lazkano intsumisoaren egoera salatu nahi izan zuen. Jokalariak plastikoz zati batzuk jarri zituzten lepotik zintziliek eta plastikoz horietatik "Epaiketarik ez" eta "Intsumisioa" irakur zitekeen. Joxe Lazkano Bildurbarek LAMeko jakalariazandakoa da eta talde horretako jokalariek bere koadrila ko lagunak dira.

emaitzak

Os Jardineiros	3 4	Tokieder
OH Zerezos	3 12	Akort Ariznoa
Bar Canalejas	2 1	Nahikari Hool.
Shaktale	2 13	Bildurbarek LAM
Kriterium	3 3	Angiozar
Ezinleike	1 6	Madura
Usoa	4 3	Ogizun
Guadalest	1 1	Errotagain
Soropotroak	0 3	Mongatxurra
Arloteak	6 3	Kriston Potruak

golegileak

1. Iñigo Pagaldai (Angiozar) 23 gol
2. Fernando Salinero (Ogizun) 21 gol
3. Iñaki Mujika (Tokieder) 19 gol
4. Bittor Jimenez (Kriston Potruak). 18 gol
5. Aitor Anton (Errotagain) 17 gol



Iñigo PAGALDAI

emaitzak

Euxebio II **7 11** Kalimotxo

hurrengo partiduak

• LARUNBATA •

- 09.00: Labegarieta-Paok de San Juan
 10.00: Hartu Zamat-La Txupeta
 11.00: Amozkibar-ufala
 12.00: Eri-KK Usaina
 13.00: Ogizun-Akort Ariznoa

• IGANDEA •

- 09.00: Igandekoak-AriAri
 10.00: Krai-Pata Negra
 11.00: Arkupe-Kirolzaleak
 12.00: Eusebio-Matalascañas
 13.00: Ozaeta-Aldoka Maldoka
 16.30: Ube Bikoitza-Revienta
 17.30: EH Biterrak-Kalimotxo
 18.30: Etxagi-Egoki

golegileak

1. Ivan Agirrebeña (Ozaeta) 42 gol
2. Igor Agirrezabal (Kalimotxo) 40 gol
3. Juantxo Iuzkiza (Etxagi) 39 gol
4. Andoitz Garitano (Arkupe) 35 gol
5. Joseba Larrañaga (Eri) 33 gol

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

- Bergara-Tolosaldea (Lehen Erregionala) Igandea, 16.30, Ipintza.
- Bergara-Gazteak (2. mailako jubenilak) Larunbata, 17.30, Ipintza.
- Bergara-Aloña Mendi (Lehen mailako kadeteak) Larunbata, 15.30, Ipintza.
- Bergara-Soraluze (Lehen mailako infantilak) Igandea, 11.00, Ipintza.

ESKUBALOIA

- Bergara-Arrasate (Senior mutilak) Larunbata, 17.45.
 - Bergara-Leitzarar (Kadete neskek) Larunbata, 19.00.
- Biak Labegaraietan.

SASKIBALOIA

- Bergara-Askatuak (Jubenil mutilak) Larunbata, 16.00.

PELOTA

- Profesionalak -

- Soroa III eta Azkarate / Arteaga eta Lasa III
 - Unanue eta Aldazabal II / Lejardi eta Zezeaga
 - Errasti II / Oliden (2. mailako banakako Txapelketako partidua) Larunbata, 16.30.
- Udal Pelotalekua.

Lehen Mailako Erregionaleko futbol taldea gero eta hobeto

Azken asteetan lortutako emaitza onei esker, pixkanaka-pixkanaka zulutik irtetzen hasi da Manu Diazek entrenatzen duen Lehen Mailako Erregionala. Joan zen larunbatean Ordizian puntu bat lortu zuen, Muruamendiarezek bigarren zatian lortutako golari esker partidua banako emaitzaz amaitu ondoren. Ordiziarrak hirugarren daude sailkapenean eta datorren urtean Preferente Mailan jokatzeko aukera haundiak dituzte. Bergararrak, berriz, 15. postuan sailkatuta daude, 20 puntu eta 4 negatiborekin.

Partidu zailak

Hemendik eta bukarara arte jokatzeko geratzen zaien 14 partiduetan beste hainbeste puntu



Ordiziako Altamiran zapatuan berdinketa lortu zuen taldea.

atera beharko dituzte mailari eusteko. Ez da erraza izango, partidua zailak geratzen baitzaizkie, batez ere etxean. Hasteko, larunbat honetan bosgarren sailkatuta dagoen Tolosaldea hartuko dute Ipintzan eta hurrengo asteetan aurreneko lau postuen artean dauden Oiartzun eta Touring-en kontra jokatu be-

harko dute Bergaran.

Dávila eta Vallejo anaiak lesionatuta aurkitzen dira eta horrela egon dira azken hilabeteetan, horregatik Manu Diazek 16 jokalaria bakarrik erabiltzeko aukera izan du liga honetan. Guzti horiek kontutan izanda pozik dago entrenatzailea bere mutilek orain arte egingdako lanarekin.

Ivan Rodriguez eta Aitor Zabaleta sarituak



lazko denboraldian egindako lana aitortzeko, Aitor Zabaleta eta Ivan Rodriguez autogidari bergararrak saritu egin zituen Euskadiko Automobilismo Federazioak pasa den ostiralean Bilbon. Zabaletak Mendiko kotxe igoeretan Euskadiko txapeldun eta Espainiako txapeldun orde izateagatik eta Ivanek, *Clio 16 valvulas* kopan hirugarren sailkatzeagatik jaso zituzten sariak.

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilaskoak

Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA



KOSMEOTOLOGIAN AUKERA ZEURE-ZUREA EGIN EZAZU

Larruazal osasuntsua baduzu gogoratu, zaindu eta hotzaren, temperatura aldaketan, eguzkiaren eta abarren erasoerik aurre egiteko une aproposa dela. Orain "PREVENTION"ekin larruazala bizi eta disdiratsu mantentzeko linea ezinhobea duzu. Eskaiguzu dohaineko mostra eta zeuk frogatu.

LILURA EDERTZE INSTITUTUAN itxaroten zaitugu.
Bidekurutzeta, 7 (lehen pisua). ☎ 76 31 71

Ordutegia: Astegunetan: 9.30-20.30. Larunbatetan: 9.00-14.00.

Trenbidea itxi zuteneko argazkiak, 1971.

Astlehenean, otsailak 28, 23 urte beteko dira Mekolalde eta Zumarraga arteko trenbidea itxi zutenetik.

Goiko argazkia, azken trenaren irteera ofizialekoa duzue. Bertan Jesus Ariznabarreta makinista durangarra eta Carlos Gonzalez tren geltokiko burua eta Radio Nacionaleko korrespontsala ageri dira, Bergarako emakume talde batez lagunduta. Carlos Gonzalezek berak eman digun informazioaren arabera, trenean Juan Bernales interbentorea eta Luis Iztueta "Bolu" guardafrenuak ere bazihozzen, biak bergararrak.

Durango eta Zumarraga arteko trenbidea, esan bezala, 1971.eko otsailaren 28an itxi zuten.



Bestalde, **beheko argazkian**, besteak beste, Bergarako korrespontsalak ageri dira, azken bidaiaren datuak eta gorabeherak eta saldutako azken bileteen datuak jasoz Carlos Gonzalezen ahotik.

Ezkerretik eskumara: Marcial Moreno (Norte Expresseko korrespontsala), Consuelo Larrea, Dorotea Lekuona, Jose Mari Larrea (El Diario Vasco ko korrespontsala), Jose Irigoien (aurreko geltokiburua), Carlos Gonzalez eta Jose Mari Urrutia (El Correo Español).

Argazkiak: Carlos Gonzalez



BEHEKO TABERNA

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

ETXEBIZITZA

Garajea (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Berriztutako **pisua** salgai. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Etxea salgai Katabian. ☎ 76 53 30.

Garajea salgai Iparragirren. ☎ 76 28 52.

Pisua salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauetz).

Pisua alokatzen da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea eta egoera onean. ☎ 76 16 89.

Etxe bat alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsaldez).

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Ibargairain. ☎ 76 36 69.

Pisu amueblatua salgai Bolun. Prezio interesgarria. ☎ 76 10 75 (gauetz).

DENETARIK

Alfa 33 kotxea salgai. Kilometro gutxi. Egoera onean. ☎ 76 02 01.

Talbot Samba (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peugeot 205 GTX kotxea salgai (SS-X). ☎ 76 09 05.

Petrikilo, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

Golf 4X4 kotxea salgai. 2 urte. ☎ 76 47 57 (gauetz).

Onix motorra (50 cc.) ia berria salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

Sega Megadrive kotsola salgai. 2 jokurekin. 19.000 pta. ☎ 76 25 12 (Astebukaeretan deitu).

Egunero goizez **Gasteiz** era joateko **kotxea** behar dut. ☎ 76 03 20.

"**Muy buena fisonomista**" neskari: Nor zaren jakin nahi dut. Eskertuko nizuke berriro idatziko bazenidan. Jar ezazu zure helbidea. Zure eskutitza ez dut apurtu. Luis Etxeberría. Prision de Valdemoro.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Artzai txakur bat galdu da. ☎ 76 27 90.

Mendi bizikleta salgai. Cannondale XT.150.000 pta. ☎ 781858 (Jose Mari).

Lau pertsonarentzako **bi litera** salgai. Koltxoiarekin. ☎ 76 37 29 (Martin).

Butanozko Mepamsa estufa salgai. ☎ 76 01 13.

Peltz eskalada ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

LANA

Gutxitu sikiko, elbarri edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

Pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 40 94 (Jaime).

Haurrak eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxe**ko lanak edota **haurrak** zainduko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta **fisika** klaseak. ☎ 761093 (Asier).

Latin, Euskara eta Frantses **klaseak**. ☎ 76 02 99.

Hildakoak

Presentacion Toledo Liarralde

otsailak 21, 77 urte

Epifanio Aldai

otsailak 17, 81 urte

Jaiotakoak

Aitor Elizburu Murgiondo

otsailak 15

Aitzol Lenisoro Iraegi

otsailak 15

Jone Agirrezabal Iturbe

otsailak 19

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragarritza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



B E R G A R A K O

OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Irizar baserria ANTZUOLA. . ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA Klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo, 4 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo, 4 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale, 1 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta, 3 2.B. ☎ 76 38 54

HAGIN KLINIKA:

- GUTIERREZ Karen - Bidekurutzeta, 6 2. (Notaria zegoen tokian). ☎ 76 05 77

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Iruñe - Telesforo Aranzadi, 1 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain, 5 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka, 7 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain, 3 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete Psikopedagogikoa: logopedia) - Simon Arrieta. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza, 2 1. ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOLOGIA Gabinetea (Logopedia, foniatría) - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (76 14 80). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76